

## **12. Askok uste dute Adj. euskaraz okerreko lekuan bezala dagoela. Zertan oinarritzen dira? Ba ote arazoari beste era batera begiratzeko modurik?**

Hizkuntza bizi guztiek jasaten dituzte aldaketak denboran zehar. Euskara ez da salbuespena eta bere diakronian izan ditu hainbat aldaketa eta zenbaitzuk handiak gainera. Aldatu daitezkeen ezaugarrien artean tipologikoak daude. Ezaugarri tipologiak ez dute bakoitza bere aldetik doazen ezaugarrien multzo bat osatzen. Ostera, euren artean lotuta dauden ezaugarrien sare bat osatzen dute eta honek sinkronian garrantzia badu, hare gehiago diakronian.

Hizkuntzak aldaketa tipologiko sakona jasan duela adierazten duen datu garrantzitsuetako bat, adjektiboak izenaren eskumalara agertzea eta kategoria bezala adjektibo ez izatea da.

Tipologia-irregularitasuna: `izena + adjektiboa´ ordena, berez SOV hizkuntza bati ez dagokiokeena. Greenberg-ek (1963) ez zion garrantzirik eman; ingeles modernoan SVO delarik `I + Adj´ tokatzen zitzaiola baina egiatan `Adj + I´ duela.

Euskara adjektibodun hizkuntza da gaur egun, baina uste da antzina euskara adjektiborik gabeko hizkuntza zela.

Adjektiboaren `irregularitasuna´ lot dezakegu euskaraz daukan izaera badaezpadakoarekin. Baldin eta antzina adjektibo kategoria berez ez bazegoen, eta berandu sortua bada Dixon-ek (1977) adjektibo gabeko edo adjektibo-sail mugatuko hizkuntzek adjektiboak sartzeko erabilitako bideak erabili ditu euskarak baita (1982):

- (1) Eratorriak: “bel-tz”...
- (2) Partizipioak: “gorr-i”, “zur-i”...
- (3) Erlatibozkoak: “ur-din”...
- (4) Maileguak: “berde”, “marroi”...

Koloreetan ez da CVC errorik aurkitzen, beraz koloreak beranduago sartu ziren adjektiboak bezala.

Normala baino ez da adjektiboa izenaren eskuinetara agertzea, hortxe agertzen baitira adjektibo berri horren sorburuetatik hiru (eratorriak, partizipioak eta maileguak). VSO hizkuntzetan `I + Adj´ hurrenkera aukera bakarra da. Adjektiboa `tokatzen zitzaien´ lekuan sortu / sartu da.

- Erlatiboa: SOV bati dagokion bezala, erlatibozko egitura izenaren ezkerretara doa. Datu guztiak ez datoz bat horrekin:

(1) `Fase sparita´-n `I + Erl´ ordena: “gizon Paristik etorri dena”.

(2) “ur-din”, “bizar-dun”... tankerako eratorriak antzinako erlatibozkoak lirateke.

(3) Toponimian “Ur dirakiena”, “Hartz eraena”, “Iturriadana”... aurkitzen da Amezkoan, Araba ekialdean edo Gorbeialdean, eta ez besterik.

- Gauza bera leku-genitiboaren ordenari buruz: “andra Mari Baldako”, “andra Milia Lasturko”...

Hau erlazioa daiteke euskararen historian antzeman ditzakegun fenomeno zenbaitekin: hasteko, “-i” bukaera duten euskal adjektiboen ugaritasunarekin: “gorri”, “zuri”, “larri”, “hori”, “bizi”... Mendebaldeko “\*hotzi” (cf. “hotzitu”), “\*baltzi” (“baltzitu”). Etxeparek “\*hari” (“haritu” `hartu´).

- “-i” partizipio marka zaharra denez, suposa dezakegu adjektiborik ez zen garai hartan adjektibo gisa berkategorizatu direla lehen aditz estatiboak zirenetako asko.